



## BELENEKO BAKEAREN ARGIA

### “Y la luz brilla en la tiniebla”

Como todos los años por estas fechas, os invitamos a participar en la celebración organizada por el movimiento eskaut en torno a la luz de la paz de Belén para toda la Diócesis.

Esta propuesta nos llega para el final del Tiempo de Adviento, tras haber podido trabajar los materiales que nos han ayudado a vivirlo, preparando nuestros corazones ante la llegada de la Navidad.

Es una ocasión para **educar en la paz** a los niños, niñas y jóvenes de nuestros grupos y parroquias, haciéndoles protagonistas de la construcción de ésta en el mundo. Con esto, queremos acercar el sentido de la Navidad a los chavales/as, equipos de monitores/as, familias,...

Bajo el lema “Y LA LUZ BRILLA EN LA TINIEBLA” la luz de la paz de Belén pretende ser este año más que nunca un signo de esperanza, alegría e ilusión ante la situación tan compleja que estamos viviendo.

Ha habido que adaptar esta iniciativa y debido a las restricciones de movimiento en Europa, en el reparto de San Nicolás utilizaremos una llama que aún sigue encendida desde el año pasado en un convento de trinitarias en Madrid.

El reparto de Luz en nuestra diócesis será el **viernes 18 de diciembre** en la parroquia de **San Nicolás**. Con la intención de reducir en la medida de lo posible el número de personas, solo podrán acudir un máximo de **dos personas por grupo** y **será necesaria una inscripción previa**. Además, el reparto se hará en **dos turnos**, uno a las 19:00 y el otro a las 19:40.

Las ramas trebeak (jóvenes de 16-18 años) son las encargadas de traer la luz de la paz de Belén anualmente a nuestra diócesis, pero debido a la situación actual no han podido desplazarse a Madrid a recogerla. Es por esto que queremos pedir a jóvenes de esa edad (procedentes de grupos eskaut o de otras realidades diocesanas) que sean las encargadas de llevar la luz a sus territorios y por tanto de recogerla en la celebración de Bilbao.

Además, queremos ir un poco más allá y proponerles que después de recoger la luz puedan realizar una actividad cuidando en sus parroquias la Luz mientras trabajan varios temas a través de unos materiales que os haremos llegar más adelante. Estos materiales han sido realizados en colaboración con las áreas socio caritativas de nuestra diócesis. Para poder seguir las recomendaciones vigentes os pedimos que podáis realizar esta actividad durante el día 19 de diciembre en un espacio adecuado (distancias, ventilación...).



También os animamos a que hagáis presente la luz en vuestras celebraciones parroquiales, y después la ofrezcáis a otras asociaciones, colectivos, residencias,... que hay en vuestros barrios y pueblos para que entre todos sigamos construyendo el Reino de Dios, que la luz se multiplique y se haga presente en los corazones de mucha más gente.

Ya lo dice el evangelio:

*"Ni tampoco se enciende una lámpara y la ponen debajo del celemín, sino sobre el candelero, para que alumbre a todos los que están en la casa. Brille así vuestra luz delante de los hombres, para que vean vuestras buenas obras y glorifiquen a vuestro Padre que está en los cielos. " Mt. 5, 15-16;*

Os recordamos que tenéis que llevar un candil para poder llevaros la luz a vuestros, grupos, parroquias o comunidades. Este año no se repartirán velas.

Podéis inscribiros en el siguiente enlace hasta el día **14 de diciembre**: [ENLACE INSCRIPCIÓN](#)

Si alguien se anima, pero tiene alguna dificultad o duda, estaremos encantados de ayudaros, si nos llamáis a escribís un correo a la delegación de Euskalerriko Eskautak Bizkaia (944795989 ó [eebfedea@eskaut.org](mailto:eebfedea@eskaut.org))

**Beti Prest**

**Euskalerriko Eskautak Bizkaia**



## BELENEKO BAKEAREN ARGIA

### “Argiak ilunpetan disdira”

Sasoi honetan urtero egiten dugunez, dei egiten dizuegu eskaut mugimenduak Beleneko argiaren inguruan Elizbarrutirako antolatu duen ospakizunean parte har dezazuen.

Proposamen hau Abendu aldiaren azkenean datorkigu; ordurako, landuta izango dira aldi hori bizi izaten lagundu diguten materialak, hau da gure bihotzak Gabonetarako prestatzen.

Aukera ona da gure talde eta parroketako haur eta gazteak **bakean hezteko**, bide batez, eurak bakegile bihurtuz munduan. Horrela, Gabonen sena agertzera eman nahi dizuegu neska-mutikoei, begiraleei, familieei...

"Argiak ilunpetan disdira" lelopean, Beleneko bakearen argiak bizi dugun egoera konplexuaren aurrean inoiz baino itxaropen, poz eta ilusio handiagoa izan nahi du aurten.

Ekimen hau egokitu egin behar izan da, eta European mugimendu murrizketak direla eta San Nikolasen banaketan sugar bat erabiliko dugu, iaztik Madrilgo trinitarioen komentu batean piztuta mantendu dutena.

**Abenduaren 18an**, ostirala, banatuko da argia gure elizbarrutian, **San Nikolas parrokiari**. Ahal den neurrian pertsona-kopurua murrizteko, talde bakoitzeko **gehienez bi pertsona** joan ahal izango dira, eta alde aurretik **izena eman** beharko da. Horrez gain, banaketa **bi txandatan egingo da**, bata 19:00etan eta bestea 19:40an.

Trebeak adarrak (16-18 urteko gazteak) arduratzen dira urtero Beleneko bakearen argia gure elizbarrutira ekartzeaz, baina egungo egoera dela eta, ezin izan dira Madrilera joan hura jasotzera. Horregatik, adin horretako gazteei (eskaut taldeetakoak edo elizbarrutiko beste errealitate batzuetakoak) eskatu nahi diegu argia beren lurraldeetara eramatea eta, beraz, Bilboko ospakizunean jasotzeko.

Horrez gain, pixka bat harago joan nahi dugu, eta proposatu nahi dizuegu argia jaso ondoren jarduera bat egin dezatela beren parroketan Argia zaintzen, hainbat gai lantzen dituzten bitartean, aurrerago helaraziko dizuegun material batzuen bidez. Material horiek gure elizbarrutiko gizarte eta karitatezko arloekin elkarlanean egin dira. Indarrean dauden gomendioei jarraitu ahal izateko, jarduera hori **abenduaren 19an** egin dezazuen eskatzen dizuegu, espazio egoki batean (distantziak, aireztapena).



Aldi berean, delako argi hori zuen parroketako ospakizunetan agertzera eman dezazuen eta, ondoren, zuen auzo eta herrietako elkarte, talde, egoitzetara... eraman, denok bat eginda, Jaungoikoaren Erreinua eregiten jarrai dezagun, argia hedatu eta jende askoren bihotzetara hel dadin.

Horixe diosku ebanjelioak:

*"Kriseilua be ez da bizten ontzipean ipinteko, argimutilaren gainean baino, etxeko guztiei argi egiteko. Era berean, zuen argiak danen aurrean egin behar dau argi, zuen egintza onak ikusiz, zeruko zuen Aita goretsi daien". Mt 5, 15-16;*

Ospakizunean parte hartzeko asmorik baduzue, ez ahaztu kriseilua, argia zuon eta parrokia edo elkarteetako taldeetara eraman ahal izateko. Aurten ez dira kandelarik banatuko.

Hurrengo estekan izen eman dezazuen eskatzen dizuegu **abenduaren 14a** baino lehen: [APUNTATZEKO ESTEKA](#)

Ekitaldiarekin bat egin nahi eta zailtasun edo zalantzaren bat baduzue, pozik lagunduko dizuegu. Jakinarazi ezazue Euskalerriko Eskautak Bizkaia mugimenduaren ordezkaritzara deituz edo mezua bidaliz (944795989 edo [eebfedea@eskaut.org](mailto:eebfedea@eskaut.org)).

**Beti Prest**  
**Euskalerriko Eskautak Bizkaia**